

Alegia konbulstsiboak

Ba omen zen hemendik urrun bere haragiaz eraiki zen hiri bat. Bertako biztanleek hiriko lurzorua zulatzen zuten etxeak, jauregiak, elizak, etab. egiteko harria atera beharrez. Denbora aurrera joan eta, izu handi batek beretu zituen biztanleen bihotzak: beldur ziren hainbeste nekez eraikitako hiria ez ote zen beren oinen azpian amilduko. Izan ere, bazen izututa egoteko arrazoirik: hiriaren erraiek belaki handi bat ziruditen, etxegintzarako harri erauzketa hura zela eta. Gainera, beldurra areagotu zuten gorabeherak gertatuak ziren, hala nola, adibidez, lurra ireki zen egun hartakoa, zazpi pertsona —familia oso bat!— irentsi baitzituen lurrak orduan, hilotzak sekula itzuli gabe.



Baina izu-ikara handiko unea, eta biztanle batzuek denboren amaieraren seinaleztat hartu zutena, neguko egun batean etorri zen: 3 egun eta 3 gau iraun zuten euri erauntsi gogorren ondoren, beren hilak betiereko baketik atera eta hirian zehar ibiltzen jarri ziren. Nonahi ageri ziren hilak: etxe eta kaleetan, tenplu eta lorategi publikoetan, fabrika, banku eta kafetegietan. Bazen, alabaina, arrazoi guztiz arrazional bat harrigarri ematen zuen fenomeno hartarako: hiriko biztanleek luzaz erabiliak zituzten belaki-lur hartako zuloak beren hilak lurperatzeko. Hilak bota egiten zituzten zulo horietan, besterik gabe, guztiz era naturalean, egintza horien ondorioetan instant bat ere pentsatu gabe. Euri uharrak iritsi zirenean, hiriaren erraieran zegoena jalgiarazi zuten, besterik gabe, eta gorpuak

alde guztietan ageri ziren: berriki egotziriko gorpuak, usteltze betean zeudenak, edo gorpu zaharrak, aspaldidanik eskeleto bihurturikoak.

Eskeleto horiek izan ziren, hain juxtu ere, beldurrik handiena eragin zutenak, eta ez, pentsa litekeen bezala, hilotz usteldu haiek, gure egungo begietarako askoz higuingarriagoak gertatzen direnak. Hiriko biztanleentzat, ordea, beren hilak ezin ezagutzea anitzez ere mingarriagoa zen. Ezin ezagutzeko hezur pila besterik ez zuten ikusten beren aurrean. Aldiz, hilotz usteldu batean berrikitan hildako semea ezagutu ahal zutenek deitoratu egiten zuten, edo duela gutxi berekin dantza egiten zuen hildako senarra aurkitzen zuten emakume zaharrek. Gainerakoak, ordea —gehien-gehienak—, saiatzen ziren zentzua ematen ikusten zutenari, baina alferrik. Eta azkenik, oso mingarria izan behar zuen semea hezur pila anonimoen artean aita osatu nahian ari zela ikusteak, edota ilobatxoia toki batetik bestera korrika zihoala, aitonaren burua aurkitu nahiz.

Izu-laborria apaldu ondoren, hiriko biztanleak enparantza nagusian bildu ziren ospaki-

zun handi bat egitearren. Era horretan antolatzen zuten lehen ospakizun kolektiboak zen hura, eta gainera, bertaraturiko pertsonaia garrantzitsuak taulada batera igo eta handik mintzatu ziren guztiak, etorkizuneko belau-naldiak gisa horretako gertakarietatik babestu beharraz. Ospakizun hartan, katakonbak bilakaturiko hiriaren errailetan hildakoak sekula gehiago ez lurperatzea erabaki zuten biztanle guztiak, aurrerantzean toki berezietan egingo zuten hori, hiritik urrun, *cimetières* deitu zituzten kanposantuetan; esamolde oso zaharretik zetorren hitz horrek “atseden lekua” esan nahi zuen.

Atsedena, alabaina, hildakoen ez besteren pribilegioa zen, zeren eta gertakari haren ondoren hiriko biztanleak asko aldatu baitziren. Egia esan, ez zen bat-bateko aldaketa, ezta epe motzera hautematekoa ere, baina erauntsien garaitik aurrera, hasi ziren garrantzi handia ematen aitaren eta semearen arteko antzari, antzekotasun hori izan dena eta izango dena banatzen dituen muga bailitzan. Gainera, beren buruaren eta besteren argazkiak egiteari ekin zioten, batez ere norberaren familiarenak. Izan zen, halaber, agure guztiz jakintsu bat, zeinak, berriki hildako gazte baten argazkiari begira zegoela, esan zuen “hilik dago eta hil egingo da”, baina inork ez zuen benetan ulertu zer adierazi nahi izan zuen, nahiz eta halako hitzak aditzean guztiok dakigun sentimendu hori sabelean nabaritu haietako batzuek. Baina funtsean, argazki horiek balio zuten pertsonak zirenez hitz egin zezaten, jadanik ez zirena erakutsiz.

Haietariko batzuk, ordea, zerbait gehiago, egonkorrago, betierekoago egin beharra zegoelako uste oso-osoa zeuden. Horiak estatua handi batzuk eraikitzeari ekin zioten, eta “monumentu” deitu zieten, hots, iraupena, iraukortasuna adierazi nahi zuten hitz batez. Baita eraikuntza oso batzuk beren funtzioetik desbideratu ere, esanez halako eraikuntzek monumentu bilakatu behar zutela, haien garrantzia zela eta. Bestela esanda, jendeari ziurtasuna inporta zitzaion. Orainaz bezain ziur egon nahi zuten iraganaz. Beren hildakoei, jadanik berengandik urrun zirenei, loturik egon nahi zuten era sinbolikoan. Alabaina, erauntsien garaian hildakoak ezagutzeko egin behar izan zuten ahalegin handi hura —eta hain izu handia eragin zuena— berriro ez egitea zen beren helbururik behinena. Biztanleen ustetan, denborazko iraupenaren itxura halako bat sortuz (hau da, monumentuak eraikiz), ez zuten beren hildakoak beti eta beti ezagutzen ibili beharko. Denok elkaturik, oroimen aparta —aparta baino gehiago ere bai— zuten gizon baten antzekoa izan nahi zuten: gizon hura gauza guztiez oroitzen zen, eta are gorabehera ñimiñoenak ere irudi bilakatzen zitzaizkion; bere oroimenean ezartzen zituen guztiak, gainerako bizidunek dugun ahanzturaren pribilegioaz inoiz gozatu gabe.

Denborazko iraupen bat sortu ahal izateko haustura espazialen beharra izatea ironikoa gertatzen zen hein batean. Baina gehiegi pentsatu gabe pasatu ziren fenomeno horren

ondoan. Eta, beren logika kolektiboari jarraituz, hiria birmoldatzeari ekin zioten, era erradikalean: handik harat ikurrez beteriko hiria behar zuten, baina ez edonolako ikurrez bete. Beren historiari erreferentzia egiten zioten ikurrak behar zituzten, edo gutxienez Historia Komuna deitzea adostu zuten harekiko erreferentziadunak. Zenbaitetan besteren historiari ere heldu zioten, berenak huts egiten zirenean, eta ondorioz mailegu hori, bere lehen zentzua galdurik, modako fenomeno bihurtu zen. Gauzak apur bat konplexuago egin zituen gertakari batek. Behin batean, arduraren erantzule zen garrantzizko pertsonaia batek hiri osoa pastel koloretan margotzea erabaki zuen, ezen, beraren iritziz, oso hiri triste bilakatu zen hura. Harrezkero, anbiguotasun kezkarri batek laguntzen zion monumentu horien irakurketa ahalegin bakoitzari, pintura berriak lausotu egiten baitzituen espazio-hausturak.

Aldaketa erradikal horiek ondorio larriak ekarri zituzten hiriarentzat. Esango nuke are biztanleen asmoen guztiz aurkako ondorioak eragin zituztela. Eta, puntu honetaraz gero, zehaztu behar dut ez naizela ni biztanle purista batzuen iritzikoa, hiriaren egiazko Historiara itzultzea errebindikatu eta “Lehen Iturriak” deituetara jo nahi duten horien iritzikoa, alegia. Ezta hurrik eman ere. Eta azaldu egingo dut hori, haien olerkari ezagunenetako bat aipatuz:

**“Nahi dut, ene eglogak garbiki egin nahian,
Zeruaren ondoan etzan astrologoen eran,
Eta, ezkiladorrea auzo, entzun ametsetan
Haizeak eraman himno ospe handikoak.
Esku biak kokotsean, goiko ganbaratik
Ikusiko nituzke lantegia, kantari eta kalakari,
Hodiak, ezkiladorreak, hiriaren masta horiek,
Eta eternitateaz ametsarazten duten zeru goiak”**

Alde batera utziko nuke hiria itsasontzi gisa aurkezten duen metafora, ederregia eta posibilitatez sobera bete aurkitzen baitut.

Poema horretan azpimarratzekoa da bi hiri desberdinak izatea, baina bereizirik ez daudenak: hodiak eta ezkiladorreak dira hiri bien ordezkari metonimikoak. Garbi dago, halaber, hirietako bat iraganekoa dela (ezkiladorreena), eta hodierna (lantegiena) gaur egungoa. Baina hiri biak batera izate hori ez da erraza gertatzen: iraganekoa egungoaren baitan existitzen baita eta batzuetan gaingaitu ere egiten baitu, hura errebindikatzean. Gauzak gehiegi ez korapilatzearen, esan dezagun soilki egungo hiriak antzinako denbora guztiak gordetzen zutela bere baitan. Bestalde, hori da hiria aztertu zuen pentsalari batek ateratako ondorioa. Duela gutxi, beste pentsalari batek musika pieza batekin alderatu du fenomeno hori: iraganeko hiria baxu musikaren antzekoa da, atzealdera proiektatua, bigarren mailan dagoena.

Hala ere, goian aipagai izan ditudan aldatetako "baxu musika" horren aurkako erantzeratu dira guztiz. Biztanleek historiari etengabe dei eginez, beren hildakoak ezagutzeko ahalegina berriro ez egiten lagungarri izango zuten oroimen kolektiboa sortzearen, baina baita denborazko eta are espaziozko inperioa sortzearen (eta hori egia esan ez du biztanleetarako ezeinek aitortzen), beraz, beren historiari etengabe dei eginez, eta batzuetan besteak ere bai, historiaren azelerazioa eragin zuten. Emeki-emeki konturatu ziren noranahi joan, eta historia orpo orpo segika zutela. Beren hiria ikurrez hain kargatuta zegoen, non espaloietan barna ibiltzean ito egiten zirela iruditzen zitzairen; ikur bakoitzak beste non-baitera eramaten zituen, eta ez zuten non-bait hori, denborazkoa zein espaziozko nonbait hori kontrolatzen. Hiria espazio-haustura horietaz beteta zegoen, eta horiek gune "arruntak" dislokatzen zituzten; metaforaz hitz eginez, esan zitekeen hiriak dagoeneko bere errai-belakiaren antza zuela, eta hilotzen hatsa sentitzen zela kale kantoi orotan eta aldi oroz. Gehiegikeria horien lagun, gertakari parrasta etorri ziren bata bestearen ondoren, halako era iheskor eta irrazionalen, non beren historia pertsonala Historia Handiarekin gurutzatzen zelako sentimendu garbia zuten (nahikoa zen "ni bertan nengoen" edo "neuk ikusi dut telebistan" esatea). Gainera, munduari zentzu bat emateko eutsi ezinezko eta etengabeko premia nabaritzen zuten. Halako pertsonaia arrunt baina autoritario batek kalean gerarazi eta azalpenak eskatu beharko balizkie bezala. Horrek, esan berri dudanez, nahi zen ondorioaren aurkakoa ekarri zuten. Lehenik eta behin, gehiegikeria horrek bakartasunerako joera guztiz sendoa eragin zuten; ez zen haien bizitzan abaildura bakarti hartatik atera zitzakeen ezer nahiko liluragarririk:

"Bizitza gainerakoan unea bailitzan Eguna anaiak bezala partekatuko bailukeen", esan zuten haien olerkarietako batek.

Gero, istripu baten ondorioz oroimena galdu zuten gizon hura bezala izan nahi zuten denek. Egia esan, gizon hark ez zuten oroimena galdu, baina bai bururatze, gogoratzeko ahalmena. Istripu aurreko bizitzaren gorabehera eta gertakari guztiez oroitzen zen, eta ez zuten galdu automobila gidatzeko ahalmena, edo ganibeta erabiltzekoa, adibidez. Baina ezin arestian buruturiko ekintzez edo esandako hitzez oroitu. Nahikoa zen zenbait segundo horrelakoak ahazteko. Hiriko biztanleentzat, gizon hura ia heroi nazional bihurtu zen, *role model* ingelesez esaten den bezala. Eta arrazoia sinplea zen: denek zekiten, ia berez, oharkabe, distraitu bilakatu zirela, eta ez zutela gogoaz ezertan jartzeko desirarik, ezta indarrik ere. Haien zentzu, gogoratzeko ahalmena galdua zuten gizon hura etengabeko oharkabetasun egoera horren segida logikoa zen. Izan nahi zutenaren metafora perfektua.

Oharkabetasun iraunkorreko egoera hori,

alabaina, ezin ondorioz gabea izan. Hiriko biztanleek atzetik atergabe zihuan historia, berek dei egindako historia, orpo orpo zebilkien historia, denboraren pertzepzio eta ulermenaren distortsioa lagun zuela azaltzen zitzairen. Denbora ez zen lehen ezagutzen zuten denbora lineal hura; ezen orduan trinkoturik eta beren gainean itxirik agertzen baitzitzairen. "Denboraren nozioa galdu duen hiri bat naiz ni", esan zuten haien arteko olerkari batek. Eta gaineratzen zuten: "Eraikuntza garaienetik erortzen naiz lehertu beharrez, baina ez naiz inoiz lurreraino iristen", edota "Badira hogeituz hamar urte toki berean zainak ebakitzen ari naizela, inoiz burutu gabe". Baina haien denbora jadanik lineala ez bazen ere, zein esanahi izan zezaketen "orain", "iragan" eta "etorkizun" nozioek, hiriko biztanleek hain bortizki, irmotasun ia irrazionalen eta egiazki zentzugabek, atxikiriko nozio horiek? Historia beti eta beti orainaldian presente bazegoen, nola sar zitekeen iraganean eta historia bilakatu?

Ez diot erantzunik eman nahi galdera konplexu eta estratifikatu honi, itxuraz erraza bada ere. Nik egin dezakedana, ordea, historia horren logikari jarraitzea da, euri uharren ondorengo etorri zen beste gertakari kate paralelo baten xehetasunak emanez —eta ez da garrantzi txikiagoko gertakari kate oraingo hau, baina, era bitxian, hiriko biztanleek ezkutaturik gorde dute. Inork ez du gertakari horietaz mintzatu nahi, eta haierako bat hitz egin beharrean aurkituz gero, edo orokortasunetan geratzen da, edo biztanleek ongi ezagutzen duten amarru bat erabiltzen du. Amarru hori historia guztiz dramatikoak kontatzean datza: halakoak egiazkoak edo gezurrezkoak izan daitezke, baina batez ere galdetzaileen arreta desbideratzeko balio dute, benetan kontatzeko ezer ez baitute.

Historia honela hasten da: gainerakoak bezalako egun batean, eta guztiz ustekabe, biztanleetako batek oso makina polita asmatu zuten. Makina horrek hots guztiz ezta, ia hipnotikoa egiten zuten, eta emozioak neurrigabe areagotzeko ahalmena zuten. Gorrotozko makina polita guztiz, maitasuneko makina polita oso. Aise igarri daitezkeenez, halako makina bat asmatzeak munta handiko ondorioak ekarri behar zituen. Eta hala izan zen, ia biztanle guztiek makina horietako bat bereganatu ondoren, gerra izugarri bat piztu baitzen haien artean. Elkar ezagutzen ez zuten pertsonen gorroto ikaragarria hartu zioten elkarri, eta are okerrago dena, elkar ezagutzen ez zuten beste batzuek elkar maite zuten amodio zoro batez. Amodio konbultsiboz maite zuten elkar.

Harrezkero, hilak nonahi gertatu ziren. Ehunka, milaka, ehun milaka biztanle desagertu ziren. Euri uharren garaian bezala, zerbait egin beharra zegoen, baina aldi hartan hirian gertaturiko aldatetako bat-batekoak izan ziren, eta horrek aldateten aurreko erreakzio bortitzak ekarri ohi ditu. Lehenik, hiriko biztanleek beren hilen argazkiak hormetan jartzea erabaki zuten. Argazki haiek, zuri-beltzean eginak, ez ziren

kalitate handikoak, hau da, ahalegin bikoitz egin beharra zegoen: alde batetik, argazkia hildakoen argazki gisa ezagutzeko; eta bestalde, hildakoa hildako gisa ezagutzeko. Zeregin hori are zailagoa gertatzen zen hildakoen kopuruagatik —argazki gehiegi zegoelako, beraz— eta biztanleen gehiegizko hunkiberatasunagatik. Anibalentzia horren berri emateko, beste historia batez baliatuko naiz: aldi nahasi hartan, gizon bat hilik aurkitu zuten kalean, zaborretara egotzia. Gerora jakin denez, gizon horrek semea galdu zuen gertakarietan, eta diotenez, hasieran semearen argazkiak harro zegoen, eta hiriko bazter guztietan jartzen zuen. Are gehiago, urraturik zeudenen orde besta batzuk jarri ohi zituen, nondik ateratzen zituen inork ez dakiela. Baina egun batean, arrazoi misteriosu bat dela medio, bere gelan itxi zen, bere argazki bilduma bildu zuen eta semearen aurpegia ezabatzeari ekin zion borragoma batekin. Jakina, argazki inprimatu bat ezabatzea ez da gauza erraza, baina haren ardura tematiak emaitza positiboa bermatzen zuen. Gero, kalera jaitsi eta semearen argazkiak urratzen hasi zen; hori ez zen jende askoren gustukoa izan, baina desenkusatu egiten zuten haren atsekabe handia zela eta. Ondoko etapa dramatikoak izan zen, eta etsai asko ekarri zizkion: bidean aurkitzen zituen argazki guztiak (eta ez semearenak bakarrik) urratzeaz gainera, hiriko horma guztiak zuriz margotzen hasi zen. Esana dut etapa dramatikoak izan zela, ondoko arrazoi honengatik, hain juxtu: beren hildakoen argazkiak hiriko hormetan jartzearekin, iragarki soil bat baino gehiago egiten zuten bertako biztanleek. Hildakoak hilik ez zeudelako itxura egin nahi zuten (eta beren erruduntasuna zuritu), baina batez ere, hiria inplikatu nahi zuten beren gehiegizko emozioetan, zeren eta makina polit hark gizakiengan baizik ez zuen eraginik. Horrenbestez, pintura zuriak ez zuen asmo-profezia txar hura gauzatzen uzten. Aipatu gizon hura beranduegi konturatu zen bere egintzen ondorio larriez. Haren argazkia ez zuten hiriko hormetan jarri, horra gizonaren hil ondoko mendeku bakarra.

Gizon hura itzali eta gero, biztanleek ondoko erabakia hartu zuten: aurrerantzean ez zuten hildakoen argazki gehiago hormetan jarriko. Ezin ziren arriskatu gure aurreko historiaren protagonistak buruturiko atentatuaren antzeko bat berriro gerta zedin. Baina nola egin? Ezin ziren bizi-tzeko, oroitzeko halako gogoia ematen zien hildakoengandik bereizi. Erljio gizon batek irtenbidea aurkitu zuen: argazkiek airean dilindan egon behar zuten. Gainera, argazkiek ez zuten jadanik zuri-beltzeko argazki arrunt, kalitate txarrekoak izan behar. Ez, banakako erretratua margotu beharra zegoen hildako guztientzat. Handik harat, hildakoen ezin konta ahala erretratuk planeatuko zuten hiriko zeruan, biztanleen buruen gainetik. Ia faxista zen egoera: ezin daiteke solastatu gure aurpegiaren gainetik, horren gora, dagoen zerbaitekin. Baina biztanleak hain kontent eta harro zeuden, ezen beren buruan ez zen bestelako ideietarako lekurik, ideia kritikotarako lekurik batik



Idazlearen aita, martiri gisa margotua irudi kulunkagarri batean.

bat. Nota gozakaitz bakarra doinu horretan: aita galdua zuen gazte batek esan zidan ezin ziola euforia orokor eta zozo hari atxiki. Izan ere, semea oroitzeko gazteegi zelarik galdu zuen bizia aitak. Haren erretratua besterik ez zuen semeak, airean planeatzen zuten gainerakoen artean. Eta ehunka aldiz esan zioten erretratu hark aita nekerik gabe ezagutzeko balio behar zuela. Baina semeak ahalegin izugarria egin behar zuen beraren eta aitaren artean tartekatzen zen margolaria alde batera uzteko, bai eta berea ez zen bizitza baten ukitu anonimoak aita hilaren aurpegia ferekatzen jasateko. Baina haren arrangurak, batez ere, margolarien erretratua horiek marrazten zituzten moduarekin zuen zerikusia. Ezen horiek ez zuten hildakoa marrazten, heriotza baizik, heriotza abstrakzio gisa. Gainera, edozein aurpegi marrazten zuten, ez zuten atzera, iraganera begiratzen, ustez, hildakoa zegoen iraganera, baizik eta aurrera, hildakoek urratuko ez zuten etorkizunera.

Finean, nola amaitu oraindik amaitu ez den historia bat? Itxaron nezakeen hau guztia kontatu aurretik, bai. Baina zeri itxaron? Amaieraren bati? Ondorioaren bati? Amaierak ez dakar hasiera bat berekin? Eta ondorioak ez dakar beste sarrera bat berekin? Eta, egia esateko, ez dut ikusten nola egon daitekeen hasiera eta amaiera baten zain, lineala izan nahi ez duen denbora batean.

Nolanahi den ere, kontra-ondorio bat aurkez neza nire: Elisha Otis, igogailuaren asmatzaileak antzerki ikuskari bat muntatzea erabaki zuen bere asmakuntza aurkezteko. Hona ikuskaria: Otis plataforma batera igo eta sabairaino igoazten dute. Goian zain daukan laguntzaile batek belusezko kuxin bat aurkezten dio, ganibeta bat haren gainean datzala. Otisek, ganibeta hartu eta eraso egiten dio itxuraz funtsezkoena den asmakuntzaren atal bati: plataforma gora eramane duen kableari, dena erortzea galarazten bide duen horri. Kablea bate-batean hautsi da, baina ez da deus ere gertatu. Seguritasunezko elementuek mantendu dute plataforma bere lekuan, ez da erori, eta horixe da asmakuntzaren muina. Otisek une gorenaren aurkakoa ekarri du amaiera gisa, ez-gertakaria garaipen gisa. ■

TONY CHAKAR arkitektoa da. *Beiruten bizi da.*

Testu hau Sevillan 2001eko urriaren 24an Catherine Daviden zuzendaritzapean egin zen eta Egungo irudikapen arabiarrek: Ekialde Ertaina mintegian aurkeztu zen. Egungo irudikapen arabiarrek proiektua Bartzelonako Fundació Antoni Tàpies-ek hasi zuen eta proiektu orokorrako baten atala da, Sevillako UNIA, arte y pensamiento, eta Artelekurekin batera egindakoa.